



Inteligentzia artifizialaren erronkak Administrazio publikoan

Challenges of artificial intelligence in the Public administration

JONE PEÑAGARICANO URRUZOLA

Graduada en Derecho
jonepe18@gmail.com

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.121.2021.09>

LABURPENA: Lan honen xedea administrazio publikoan inteligentzia artifizialaren erabilera aztertzea da, eta ordenamendu juridikoak honen erabilera arautzerakoan kontuan hartu beharreko oinarriak aztertzea. Horretarako, hainbat autorek egindako ikerketak eta hainbat erakunde publikok egindako ebazpen zein txostenak erabili dira. Azken ondorioak agerian uzten du sektore publikoan adimen artifiziala arautu egin behar dela teknologia hau diseinatzen denetik exekututzen deneraino, ikuskapenak egin direla bermatu, eskumena duen arduradunaren bidez.

HITZ- GAKOAK: Adimen artifiziala. Administrazio publikoa. Ordenamendu juridikoa. Arriskua. Ikuskapena.

ABSTRACT: The objective of this work is to analyse both the use of artificial intelligence in Public administration and the premises on which the legal system should build the regulation of its use. To this end, information has been collected from different authors, as well as opinions and reports from different areas and public entities. The final conclusion shows the need for its regulation in the public sector, guaranteeing that from its design to its enforcement the competent authorities carry out a due inspection.

KEYWORDS: Artificial intelligence. Public administration. Legal system. Risk. Inspection.

RESUMEN: El objetivo de este trabajo, es analizar el uso de la inteligencia artificial en la administración pública y las premisas en las que debe basarse el ordenamiento jurídico para regular su utilización. Para ello, se ha recopilado información de distintos autores, así como de dictámenes e informes de diferentes ámbitos y entidades públicas. La conclusión final, evidencia la necesidad de su regulación en el sector público, garantizando que desde su diseño y hasta su ejecución se realice la inspección debida, mediante los responsables competentes.

PALABRAS CLAVE: Inteligencia artificial. Administración pública. Ordenamiento jurídico. Riesgo. Inspección.

Trabajo recibido el 18 de agosto de 2021

Aceptado por el Consejo de Redacción el 24 de septiembre de 2021



Aurkibidea: I. Sarrera.—II. Inteligentzia artifiziala. 1. Kontzeptua. 2. Algoritmo eta IAren arteko harremana.—III. Administrazio elektronikoa eta inteligentzia artifiziala. 1. Administrazio automatizatua. 2. Administrazio elektronikoa datu pertsonalen tratamendua. 3. Adimen artifiziala administrazioan aplikatzerakoan zer? 4. Datu Pertsonalen tratamendua administrazioak IA erabiltzen duenean. 5. Inteligentzia artifiziala aplikatzearen ondorioak. 5.1. Alderdi positiboak. 5.2. Alderdi negatiboak.—IV. Adimen artifiziala administrazioaren ahalmen arautuetan.—V. Ondorioak.

Laburdurak

DBEO:	Datu Babesen Erregelamendu Orokorra
DBLOEDB:	Datu Babesen eta Eskubide Digitalen Bermearen Lege Organikoa
IA:	Inteligentzia artifiziala
I+D+I:	investigacion, desarrollo, innovación
IKT:	Informazio eta komunikazio Teknologia
SEPD:	Supervisor Europeo de Protección de Datos

I. Sarrera

Gizarte digitalizatuan geroz eta baliabide teknologiko gehiago erabiltzen dira zerbitzuak eskaintzeko, eta gizakien esku- hartzea murrizten da. Zenbaitetan, makinak dira erabakiak hartzen dituztenak eta etorkizun hurbilean prozedura hau areagotuko dela aurreikusten da. Hortaz, gizakiak teknologiaren menpe bizitzea onartu behar al du? Ukaezina da teknologia berrien bilakaera azkarrak gizartearengan duen eragina. Zentzu horretan, beharrezkoa da sortu diren hutsune legalak osatzea, hauen aplikazioen arriskuak aurreikustea eta dituen abantailak pertsonen ongizatera bideratzea.

Teknologia hauek datu erabileran oinarritzen dira eta batzuetan datu pertsonalen arabera hartzen dituzte erabakiak. Beraz, garrantzia du administrazio publikoan inteligentzia artifiziala aplikatzeak izan ditzaken ondorioak azaltzea eta ordenamendu juridikoak aurreikusi behar dituen irizpideen oinarriak aztertzea.



II. Inteligentzia artifiziala

Gizartea trantsizioan dago, informazioaren erabilera eta helarazteko moduak aldatu dira. Beharrezkoa da efizientea izateko era askotako informazioa jaso eta ematea, edozein delarik ere formatua, hots, testu, grafiko, irudi edo soinu bidez... Lan egiteko modu hau, orain gutxi arte eremu zientifikora mugatzen bazen ere, egun, garrantzi handia hartu du komunikazio eta informazio teknologien erabileraren ondorioz. Hauen artean adimen artifiziala aipatu beharra dago, bere hedadura abiadura ikaragarrian zabaltzen ari baita eta gizartearen esparru guztietan aldaketak eragiten: administrazioan, industrian, osasungintzan, sistema finantzieroan... Hor-taz, gizartean bere aplikazioak sortzen dituen eraginak ezagutu eta duten garrantzia aintzat hartu behar dira.

Zuzenbidearen ikuspuntutik, garrantzitsua da inteligentzia artifiziala zer den ulertzea eta honi buruzko definizioa ezagutzea, hain zuzen, teknologia berri honen erabilerari ordenamendu juridiko zehatz bat aplikatu behar zaio eta.

1. Kontzeptua

Ordenamendu juridikoa aztertuta, egun ez dago araudian gai honen aipamenik. IAk sistema kodifikatu baten erregelak jarraitu behar ditu, datuen prozesamenduen azterketaren ondorioz patrioiak osatzen ditu eta, horien arabera, sistemari planteatzen zaizkion erronkak era automatizatuan erantzuten ditu. Bide honetan, beharrezkoa da errealitate honi buruzko kontzeptuak zehaztasunez definitzea: algoritmoen sistema izaera definitzea, zuzenbideko iturri moduan aztertzea... (1)

Orain arteko jurisprudentzia aztertuta, adimen artifizialaren erabilerak arazo batzuk sortu ditu eta, ondorioz, auzitegiek erantzuteko premia ikusi dute, baina jurisprudentzian ez da definizio zehatz bat aurkitzen eta horrek ere hainbat arazo sortzen ditu ebazpenak ematerakoan. Izan ere, inolako definizio zein xedapenik ezean epaile bakoitzak bere interpretazioak egiteko aukera du, ondorioz, ez da segurtasun juridikoa bermatzen. Auzitegi Konstituzionalak 2019.urtean IAren inguruan lehen adierazpenak egin zituen, eta adierazi zuen pertsonen borondatea eraldatzeko gaitasuna duen teknologia dela. Instrumentu arriskutsu dela esan zuen (2).

(1) ESTEBAN J., (2019) «La inteligencia artificial (IA) : aplicación jurídica y regulación en los servicios de salud», *Derecho y salud*, 2019. 1. zkia., 265-277 or. Berreskuratua: file:///C:/Users/jone/Downloads/Dialnet-LaInteligenciaArtificialIA-7097136.pdf

(2) SAK 2019/05/22 REC. 2019-1455



Hala ere, IAren inguruko definizio zehatzik egon ez arren, autore asko dira gai honi buruz idatzi dutenak. Lehenengo definizioa 1956.urtean egin zuen Stanford John McCarthyk. Berak gizakiaren inteligentziarekin lotua dagoen sistema moduan ulertzen zuen, Inteligentzia artifiziala irizpide biologikoetara mugatu gabe(3).

Geroztik, ikuspuntuak ugaritu dira eta batzuen iritziz adimen artifiziala softwarean oinarritutako sistema da, gizakiak diseinaturikoa, dimentsio fisiko nahiz digitalean jarduten duena eta, datuak eskuratuz, interpreta-tuz eta ezagutzaren arabera arrazoituz erantzuten duena. IA sistemak arau sinboliko edo modelo numeriko bat ikasi dezake eta bere portaera ego-kitu, inguruetatik jasotzen dituen erantzunak aztertu ondoren(4). Agerian geratzen da adimen artifizialaren kontzeptua dinamikoa dela, teknolo-giaren garapenari lotua eta ikuspuntu desberdinetatik aztertu beharre-koa. Ildo horretatik, garrantzia du Estatuko zein Estatutik kanpo dauden erakunde publikoek inteligentzia artifizialaren inguruan diotena aztertzea. Hain zuzen, erakunde hauetatik eratorriko da IAK gizartean izango duen aplikazioaren oinarria eta ordenamendu juridikoa.

IA gizakiak diseinaturiko sistema da, erronka baten aurrean dimentsio fisiko edo digitalean jarduten du eta arau sinboliko edo modelo numeri-koak ikasteko gaitasuna du (5).

Espainiako Datu Babesen Agentziak IA analisiak eta inferentziak egiteko gaitasuna duen makina moduan ulertzen du(6). Aldiz, Espainiako I+D+Ik, inteli-gentzia artifizialaren estrategia diseinatzerakoan, aipatzen du IA zientzia eta ingeniari-tza mota bat dela, makinak era inteligentean erantzuteko pro-gramatzen dituen(7). Eremu askotan aplikatzen da eta modu espezifikoa, besteak beste: hizkuntza naturala prozesatzerakoan edo ikusmen artifizialean. Izaera interdisziplinaria du eta Agenda 2030erako garapen jasangarriaren helburuak lortzeko bitarteko tresna garrantzitsua dela kontsideratzen da. IA-ren erabilerak garapen politiketan eragina izango du genero arrakalan, arra-zakeria saihestean, laguntza humanitarioen banaketan, osasun unibertsala-ren eremuan... Baina baditu bere arriskuak, eta horretarako lortu beharrekoa da algoritmoen eta ereduaren gardentasuna, pertsonen portaeren manipula-

(3) FERNÁNDEZ C. eta BOULAT P., (2015), «Inteligencia Artificial y Derecho», *Problemas y perspectivas Noticias jurídicas*. Berreskuratua: <https://noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/9441-inteligencia-artificial-y-derecho-problemas-y-perspectivas/>

(4) CORTINA A., (2019), «Ética de la Inteligencia Artificial», *Anales de la Real Academia de Ciencias Morales y Políticas* Berreskuratua: file:///C:/Users/jone/Desktop/EHU%20Master/TFM/etica_IA.pdf

(5) ENIA (2020) *Estrategia Nacional Inteligencia Artificial*. Berreskuratua: <https://www.lamoncloa.gob.es/presidente/actividades/Documents/2020/ENIAResumen2B.pdf>

(6) Adecuación al RGPD de tratamientos que incorporan inteligencia artificial. Una introducción. (2020) *AEPD* <https://www.aepd.es/sites/default/files/2020-02/adecuacion-rgpd-ia.pdf>

(7) Ikerketa, garapena eta berrikuntza.



zioa saihesteko. Hortaz, beharrezkoa da lanaren automatizazioarekiko neurriak aztertzea eta teknologiaren erabilera zuzena sustatzea(8).

29.artikuluko Lan Taldeak IA erabaki automatizatu moduan ulertu behar dela dio, erabakiak gizakiaren partaidetzarik gabe hartzen direlako eta edozein datutan oinarritu daitezkeelako, hala nola, kaltea jasan duen pertsonak zuzenean emandako datuetan, pertsonengan egin den behaketan oinarritutakoetan edo eratorritakoetan.

Europako Datu Babesen Batzordeak dio, beharrezkoa dela IA definitzea etorkizunean aplikatzeko eta aipatzen du kontzeptu zabala izan behar duela errealitate juridikoetara egokitzeko(9).

Europako Ikuskariaren (SEPD) iritziz, beharrezkoa sortu ditzaken arriskuak ezagutzea, araudi zehatza aplikatu ahal izateko(10). Era berean, beharrezkoa ikusten dute egiten den araudi normatiboa Europar Batasuneko estatu kide guztietan aplikatzea, baita erakundeetan ere, egoera negatiboan aurrean irtenbideak emateko baliagarria izatea, inpaktu ebaluazioa egiteko aukera egotea eta kooperazio mekanismoak aurreikustea erakundeen artean(11).

Beraz, egun, ez dago inteligentzia artifizialaren definizio bakarra eta horrek segurtasun juridiko eza sortzen da. Estatu demokratikoan, gardenetasuna eta publikitatea bermatzea ezinbestekoa da, are gehiago administrazio publikoa erabakiak hartzeko algoritmoen erabilera oinarritu bada. Errealitatea hau konplexua da eta aztertutakoaren arabera, esan daiteke IA sistema informatiko bat dela, aldezturik aztertutako egoera batzuei erantzuteko erabiltzen dena. Baina zer da IA?

2. Algoritmo eta IAren arteko harremana

Garrantzitsua da adimen artifizialaren funtzionamenduan algoritmoek duten funtzioa ulertzea.

Hein horretatik, algoritmoak inteligentzia artifiziala definitzen du, sistemak datuen sarrera aunitz biltzen ditu eta sortzen dituen modeloak beha-

(8) Estrategia Española de I+ D+ I en inteligencia artificial. (2019) *Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades*. Berreskuratua : https://www.ciencia.gob.es/stfls/MICINN/Ciencia/Ficheros/Estrategia_Inteligencia_Artificial_IDI.pdf

(9) COM (2020) 65 final.

(10) Supervisor Europeo de Protección de Datos.

(11) Dictamen del Supervisor Europeo de Protección de Datos sobre el Libro Blanco de la Comisión Europea sobre la inteligencia artificial: un enfoque europeo orientado a la excelencia y la confianza C392/03 (2020). *GT29* Berreskuratua : [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52020XX1117\(01\)&from=EN](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52020XX1117(01)&from=EN); Opinion 4/2020: EDPS Opinion on the European Commission's White Paper on Artificial Intelligence- A European approach to excellence and trust. (2020). *SEPD*. Berreskuratua: https://edps.europa.eu/sites/default/files/publication/20-06-19_opinion_ai_white_paper_en.pdf



rretara hobekien egokitzen den konponbidea bilatzen du. Algoritmoaren diseinuak pertsona kualifikatuen beharra eskatzen du eta diseinatu den algoritmoa hizkuntza konputazionalera itzuli behar da, errealitatean aplikagarria izateko (12).

Adimen artifiziala algoritmoen ikasketa automatikoan oinarritzen da, hots, Machine Learning. Izan ere, ordenagailuak datuen eta esperientzien araberako erabakiak hartzeko gaitasuna du. Kasu hauetan, hartzen diren erabakiak ez daude era definitibo batean zehazturik, algoritmoak berak sortzen baititu. Eskura dituen datuen patroiak identifikatu eta korrelazioa burutzen du, ondoren baloragarria izango den kalitatezko datuak zein diren ezagutzeko eta erabiltzeko, eta aplikazioaren bitartez sortzen diren datu berriak berriz ere erabiltzen ditu.

Beraz, tentuz jardun behar da sistema hau aplikatu eta erabilerak sortuko duen errealitate juridikoa alde aurretik ezagutu eta aztertzean. IAren erabilek arriskuak edo ahulguneak ondorioztatu ditzake herritarren eskubide eta jarduera eraginkorretan. Horren aurrean, beharrezkoa da algoritmoen gardentasuna eta ulermena bermatzea eta adimen artifizialaren zuzentasuna eta erantzukizuna zehaztea, eskubide urraketarik gerta ez dadin.

Inteligentzia artifiziala gure sistema ekonomiko eta sozialean txertatuta dago eta gizartean eragin handia du. Hortaz, garrantzitsua da iruditzen zait IAk administrazio publikoan izango duen aplikazioa aztertzea eta izan ditzaken ondorioak aurreikustea.

III. Administrazio elektronikoa eta inteligentzia artifiziala

Gizartean eredu sozial berria sortzen ari da eta administrazioaren erantzukizuna da erronka horri erantzutea. 2025. urterako aurreikusten den Agenda Digitalean, digitalizazio prozesuen garapenak ondorio ekonomiko positiboak eragingo omen ditu. Helburu horiek lortze aldera, honako abiapuntuak zehaztu dira: IKT sektorearen garapena eta trebakuntza, zerbitzu publiko digitalak eskaintzea, azpiegitura egokiak.... Baina bide horretan, erakunde publikoek administrazio eraginkorraren eta administrazio onaren printzipioa bete behar dute. Ildo horretan, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean administrazio ona herritarren eskubidea dela aitortzen da, hots, herritarrek eskubidea dute erakunde publikoengandik, beraien jarduerak era inpartzialean, berdintasunez eta iraupen egoki batean jasotzeko.

(12) BONMATÍ J., (2018). «Protección legal de los algoritmos», *Economist&Jurist*. Berreskuratua: <https://www.economistjurist.es/articulos-juridicos-destacados/proteccion-legal-de-los-algoritmos/>; PA-DILLA P., (2019). «Inteligencia artificial y administración pública. Posibilidades y aplicación de modelos básicos en el procedimiento administrativo», *Innovación y e- Administración*. Berreskuratua <https://pedropadillarui.es/docs/Inteligencia-artificial-aplicacion-modelos%20basicos.pdf>



Gainera, administrazioak komunikazio erraza, eraginkorra, inklusiboa, pertsonalizatua, proaktiboa eta kalitatezkoa bermatu behar du jarduera guztietan, baita ekintza automatizatueta ere. Beraz, hauek zeintzuk diren azalduko da jarraian.

1. Administrazio automatizatua

Azken urteetan teknologien erabilerak hainbat aldaketa sortu ditu eta eboluzio horretan administrazioaren jarduera batzuk automatizatu egin dira, kasu horietan, erabiltzen den softwarea egoera jakin batzuetan erantzun zehatza emateko diseinatu baita. Ezagutu behar da ordenamendu juridikoan gertatu den eboluzioa eta, egun, prozesu automatizatuak arautzen dituzten xedapenak (13).

Administrazioan jarduera automatizatuak arautzen zuen lehen legea 11/2007 izan zen, eta era zabal batean definitzen zuen jarduera automatizatu bidez egin zitezkeen ekintzak. Egun, indargabetua dago eta geroztik legeen erregulazioa mantsoa eta mailakatua izaten ari da.

39/2015 Legean, tramiteen azkartasuna eta segurtasun juridikoa indartzeko hainbat ekintza era automatizatuan egiteko aukerak onartzen dira: ordainagiri erregistro elektronikoen espedizioak, eskaera datuen frogagiriak, dokumentuen digitalizazioa, prozedura sustapena eta argitaratzen diren jakinarazpen eta anuntzioen publikazioa... Ordenamenduak adierazten ez dituen beste ekintza batzuk sistema automatizatu bidez egiten dira dagoeneko: espedientearen kontaketa, dokumentu elektronikoen migrazioa, herritarrei komunikazio igorpena...

40/2015 Legean, berri, 41. artikularen arabera, langile publiko baten zuzeneko parte-hartzea ez dagoen kasuetan, automatizatuaren jarduerak dela ulertzen da eta ekintza horiek alde aurretik zehaztu behar dira, batez ere, programazioa, mantentze lanak, ikuskatzea, kalitatezko kontrola, eta baita zenbaitetan sistema informatikoaren auditoria ere. Legearen 45. artikulua aipatzen du, interes publikoa dela medio, eskumena duen organoak jakinarazi behar duela zein jarduerak administratibotik erabiliko duen sistema automatizatu, baina era murriztuan dago arautua (14).

Espainiako Gobernuak administrazio elektronikoen inguruan argitaraturiko informeak zera dio: administrazioa, automatizatu, transakzionala, orokortua eta ez-pertsonala da eta egoera honek zaildu egiten du

(13) *La diferencia entre inteligencia artificial y automatización*. (2017) Observatorio IA. Berreskurtua: <https://observatorio-ia.com/diferencia-entre-ia-y-automatizacion>

(14) ALAMILLO, I. eta URIOS, X., (2011). *L'actuació administrativa automatizada en l'àmbit de les administracions públiques. Anàlisi jurídica i metodològica per a la construcció i explotació de tràmits automàtics*. Escola d'Administració Pública de Catalunya, Barcelona 2011.



politika publikoen kudeaketa, laguntza eta zerbitzu publikoetarako sarbi-dea, batez ere, zaurgarrienak diren kolektiboetan. Zehazten da administrazioen artean interoperabilitatea lortu behar dela eta, zentzu honetan, argitaratu berria den 203/2021 Errege Dekretua aplikatuko da. Bertan, Estatuko administrazioari egiten zaio erreferentzia soilik, aintzat hartu gabe beste erkidego eta botere publikoen errealitatea. Administrazioa errezentralitzatzeko joera antzematen da (15).

Azkenik, Europako legegileek adierazten dute, erabakiak era automatizatuan hartzen direnean, pertsonengan sortu ditzaken egoera larriak kontuan izan behar direla, makinak izango baitira erabakiak hartzeaz arduratuko direnak, eta ohartarazten dute ziurgabetasuna sortzen dela arlo honetan. Beraz, teknologiaren garapena araudia baino azkarragoa izan arren, botere publikoen erantzukizuna da arau edo xedapenak egitea eta berme juridikoa indartzea.

Beraz, administrazioan sistema berriak aplikatzeak hobekuntzak sortu ditu, automatizazio prozesuak, esaterako. Horiei esker arreta zerbitzuak eta hainbat jarduera azkarrago burutzen dira, baina erabakiak era automatizatuan hartzen direnean ziurtasun eza sortzen da araudia osatzear da-goelako. Bestalde, teknologien eboluzioan datu pertsonalen erabilerak zer esana ematen du eta, ildo horretan, administrazioak datu pertsonalak eskuratzeko duen legitimazioa ezagutu behar da.

2. Administrazio elektronikoan datu pertsonalen tratamendua

Administrazioak herritarren datu pertsonal ugari jaso eta tratatzen ditu, betiere, pribatutasuna eta konfidentzialtasuna bermatuz. Hala ere, erakunde publikoak interesdunen adostasuna behar al du datu pertsonalak eskuratzeko? Zalantza horren aurrean, azpimarratzekoa da botere publikoek datu pertsonalen tratamendua egiterakoan Datu Pertsonalen Erregelamendu Orokorrak eta Datu Babesen Lege Organikoak bete behar dituzte.

Hala ere, zenbaitetan, administrazioak interesdunaren adostasuna behar du bere datu pertsonalak eskuratzeko. Interesdunaren baieztapenak askea, informatua, zalantzarik gabekoa eta zehatza behar du izan, hau da, baiezkoak ekintza tinkoa izan behar du.

Zenbaitetan, ordea, administrazioak datu pertsonalak tratatzeko baimena du interesdunaren adostasunik gabe, DBEOk eta DBLOEDBK baimentzen baitute honelako kasuetan:

(15) Plan de Digitalización de las Administraciones públicas 2021-2025. Estrategias en materia de administración digital y servicios públicos digitales. Berreskuratua: file:///C:/Users/jone/Downloads/20210127_Plan_Digitalización_AP_2021-2025.pdf



- Betebehar legal bat dagoenean, erantzule denari aplikatuko zaio
- Interes publikoaren xedea betetzeko edo botere publikoaren jardueraren bete behar denean

Erakunde publiko bakoitzak zehaztu behar du datuen tratamendua burutzeko duen legitimazioa eta zein helburutarako tratatuko dituen; horrez gain, datuen gaineko interesa eta oinarri legala dagoela adierazi behar dio interesdunari. Gainera, administrazioak, datuen tratamendua burutzen duenean, ez du soilik onarpen legala behar, segurtasun juridiko egokia bermatu behar du Lege Organikoaren 8.artikuluak eta Erregelamenduko 5.1.f, 24 eta 32. artikuluek aipatzen duten moduan (16).

Ondorioz, ulertzen da administrazioak legitimazioa duela datuak eskuratzeko, betiere minimizazio printzipioa bermatuz, eta Estatuko Datu Babesaren Agentziak berresten du administrazioak legearen eta zuzenbidearen arabera jarduten duenez, ez duela adostasunaren oinarri juridikorik behar (17). Gainera, erregelamenduaren 43. kotsiderandoan aipatzen da, botere publikoa denean datuen tratamendua egiten duena, desoreka sortzen dela interesduna eta administrazioaren artean, interesdunak adostasuna ezeztatzeke aukerarik ez duelako. 29. Lan Taldeak gehitzen du beste oinarri juridiko batzuk daudela agintari publikoek datuak tratatzerakoan (18).

Zentzu berean, erregelamenduko 9 eta 10.artikuluetan eta lege organikoaren 9.2 eta 10. artikuluetan datu pertsonal bereziak biltzen dira. Erakunde publikoak, interes publikoa dagoenean, datu pertsonal bereziak tratatzeko legitimazioa du, lege izaera duen xedapena dagoenean. Horrez gain, Datu Babes Erregelamendu Orokorra onartzen du egun bizi dugun testuinguru digitala eta horien erabilera, baldin eta diseinua eta azterketa egokiak aplikatzen badira (19).

(16) FONDEVILA J., (2020). «La organización de la Administración digital», lustel. Isaac MARTÍN DELGADO (Director): *El procedimiento administrativo y el régimen jurídico de la administración pública desde la perspectiva de la innovación tecnológica*. Edt. lustel, IVAP, Centro de Estudios Europeos Luis Ortega Álvarez. 2020, 424-426 or.; CAMPOS C., (2018). *Aplicación práctica y adaptación de la protección de datos en el ámbito local. Novedades tras el Reglamento Europeo. Finalidades y bases jurídicas de los tratamientos de datos por parte de las entidades locales*. Wolters Kluwer.104-111 or.

(17) AEPD, Protección de datos y administración local. (2019). AEPD Berreskuratua: <https://www.aepd.es/sites/default/files/2019-09/guia-proteccion-datos-administracion-local.pdf>; Tecnologías y Protección de Datos en las AA.PP (2020) AEPD ; 181577/2018 txostena eta 200012/2018 txostena AEPD.

(18) Directrices sobre el consentimiento en el sentido del Reglamento (UE) 2016/679. GT29. Berreskuratua: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/es_def/adjuntos/wp259rev01_es20180709.pdf

(19) MARTÍNEZ R., (2019). «Cuestiones de ética jurídica al abordar proyectos de Big Data. El contexto del Reglamento general de protección de datos». *Dilemata*, 2017, 24. zkia., 151-164 or.; VALERO, J., (2019). «Las Garantías jurídicas de la Inteligencia Artificial en la actividad administrativa desde la perspectiva de la buena administración». *Revista catalana de dret públic*. Berreskuratua: www.rcdp.cat; SEMINARIO M., (2019). *La administración pública y protección de datos de carácter personal*. Atico34. Berreskuratua:https://protecciondatos-lopdp.com/empresas/administracion-publica-proteccion-datos/#5_Realizacion_de_un_analisis_de_riesgos_sobre_los_derechos_y_libertades_



Bestalde, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua adierazten duena aztertu behar da. Xedapen horren arabera, interesdunak dokumentuak edo datu pertsonalak ematen ez dituztenean eta horiek administrazioaren esku daudenean, administrazioak datuak kontsultatu eta tratatzeko legitimazioa du, interesdunak kontrarik adierazten ez badu (20).

Administrazioak datu pertsonalak tratatzeko duen eskumena aztertuta, teknologia berriak aplikatzeak, eskumenari dagokionez, izan dezaken eragina ezagutu behar da batik bat inteligentzia artifiziala erabiltzen duenean.

3. Adimen artifiziala administrazioan aplikatzerakoan, zer?

Aurrez esandakoa ekarrita, inteligentzia artifiziala administrazio elektronikoaren barne eremuan kokatu behar da. Prozesuen automatizazioan oinarritzen da algoritmoak erabiliz, eta erabakiak hartzeko prozesuetan aplikatzen da.

Alditu asko bat datoz IAren noranzkoa zehazteko beharrek, eta gobernuen esku- hartze zuzena behar dela ikusten dute. Adibide gisa aipagarria da honakoa: Garapen Banku Interamerikarrak «fair LAC» ekimena sortu duela, gobernuak eta enpresek IA aplikatzerakoan herritarren datuen erabilera printzipio etikoetan oinarritu daitezela (21).

Administrazioak zein teknologia mota erabiliko duen azaldu behar du eta IA aplikatzen duenean algoritmoen erabilera arrazoitu eta zehaztu beharra dauka, horiek publikatu eta gardentasunez adierazi. Zentzu horretan, Europako Batzordeak argitaratutako Liburu Zurian algoritmoak hainbat modelotan desberdinetan eragiteko sortzen direla aipatzen da. Bertan adierazten da datuak zehatz adierazi behar direla eta helburu zehatz bat lortzera bideratuko dira (22).

Bestalde, Europako Batzordeak argitaratu du inteligentzia artifizialaren marko legala, non segurtasuna eta adimen artifizialaren aldeko inbertsioak ezartzen dituen estatu kideentzat. Araudi honen xede nagusietako bat barne merkatuan aplikazio teknologietarako funtzionamendu egokia bermatzea da, arau harmonizatuak ezarrita. Lege proposamenean, segurtasunari dagokionez, lau arrisku- maila desberdintzen dira, eta etorkizu-

de los ciudadanos en cuanto al tratamiento de sus datos personales por parte de la Administración

(20) Orientación para la aplicación de la disposición adicional octava y la disposición final duodécima de la LOPDGDD. (2020) AEPD. Berreskuratua: <https://www.aepd.es/sites/default/files/2020-02/orientaciones-aplicacion-disposicion-a8-f12.pdf>

(21) BUENADICHA C. et al. (2019). *La gestión ética de los datos*. BID.

(22) STEELS L. eta LÓPEZ DE MANTARAS R., (2018). The Barcelona declaration for the proper development and usage of artificial intelligence in Europe. *AI communications* 31, 485-494 or.; COM (2020) 65 final.



nean burutzen diren legetan kontuan hartu beharko dira: arrisku gorena dutenak dira gizarteko segurtasunarentzat mehatxu diren datuak eta kasu hauetan IAren erabilera debekatzen da. Bigarren mailan, osasun arloan, hezkuntzan edo operazio kirurgikoetan... eragin dezaketenak aipatzen dira. Kasu hauetan, IA sistema aplikatuko da oso neurri zorrotzekin, beharrezkoa izanik arrisku azterketa, dokumentazio zehatzak, gizakien ikus- kapena, kontrolak eta gardentasuna egotea. Hirugarren arrisku mailan kokatzen dira pertsonak elkarri eragiten diotenak, emozioak detektatzeko erabiltzen direnak, chatbots sistemak... Kasu hauetan, beharrezkoa da gardentasuna bermatzea eta gizakiak makinekin ari direla harremanetan ezagutzea. Azken arrisku blokean, gainerako erabilerak daude, hala nola bideo jokoak, irudiaren inguruko aplikazioak... Hortaz, proposamen berriari adierazten da berrikuntza sustatzeko zenbait neurri aplikatzea, IA sistema diseinatu eta onartzeko. Horrez gain, estatu kide guztien ordezkari- tza duen Inteligentzia Artifizialaren Batzordea sortzea aurreikusten da (23).

Hala ere, Europako Batzordea IAren alde negatiboak aztertzen hasi da eta ondorioen artean azpimarratzen du, teknologia berriak existitu arren, ez direla zertan erabili beti. Zentzu honetan, Margrethe Vestagerrek dio adimen artifizialaren legediak oinarritzko eskubideak jokoan daudenerako arautuko dela, eta berrikuntza teknologikoei tartea utziko zaiela (24).

Erronka teknologikoen aipamenekin jarraituz, *algoritmoen nagusitasunaz* hitz egiten da, gizakiaren sormenaren kalerako, gizakia mugatuko baita intel- ligentzia artifizialak hartutako erabakietan oinarrituko delako. Bide horretan, administrazioa prestatu egin behar da informazio eta terminologia berrieta- rako, baita eragin kultural zein antolakuntza buruzagitzarako (25).

Bestalde, adimen artifiziala erabakietan aplikatzen bada, egoera anit- zak sortu daitezke, ondorioz, agintari publikoek teknologia honen bidez erabakiak hartzen dituztenean, kasuan- kasuko egoera aztertu eta zuzen- tasunez ematen direla bermatu behar dute. Hau da, administrazioak IAren erabileran oinarritutako erabakiak indibidualki eman beharko ditu (26).

(23) ASENSIO, P., (2021). «Propuesta de Reglamento sobre inteligencia artificial». *Wolters Kluwer*, 92. zkia.; COM (2021) 206 final.

(24) PÉREZ E., (2021). Europa crea la primera regulación sobre Inteligencia Artificial y robots: se prohíbe el reconocimiento facial en zonas públicas, con algunas excepciones. *Xataka* Berreskuratua: <https://www.xataka.com/legislacion-y-derechos/europa-crea-primer-legislacion-inteligencia-artificial-robots-asi-nueva-normativa-como-queda-regulado-reconocimiento-facial> *La Comisión Europea ante el reto de regular correctamente la inteligencia artificial*. (2021). Expansión. Berreskuratua: <https://www.expansion.com/juridico/actualidad-tendencias/2021/04/21/60804784e5fdeae2238b4629.html>

(25) HERNÁNDEZ S., PALAFOX G. eta AGUADO C., (2020). «Administración Pensamiento, procesos estratégicos y administrativos para la era de la inteligencia artificial». *Teoría general de siste- mas (TGG) y sistemas de información SIAG. De los algoritmos sistemáticos a la inteligencia artifi- cial*. McGrawHill. 124 or.

(26) BARBARÀ, M. A., «Inteligencia Artificial: decisiones automatizadas en Cataluña» (ACPD). Berresku- ratua: <https://apdcat.gencat.cat/web/.content/04-actualitat/noticies/documents/Informe-IA-Castellano.pdf>



Hortaz, administrazioaren digitalizazio prozesuan eta inteligentzia artifiziala txertatzen denean, etekinezko azpiegitura eta datuak prozesatzeko gaitasunaz gain, kudeaketa eraginkorra, segurtasuna, egitura fidagarria, prozesu egonkorra eta kalitatezkoak ziurtatu behar dira, eta, herritarren eskubideak eta pribatutasuna bermatu. Gainera, teknologia honen oinarrian datu pertsonalak daude eta erabakiak hartzeko prozesuetan IA aplikatzen duenean, datu pertsonalekiko egiten duen kudeaketa azaldu behar du.

4. Datu Pertsonalen tratamendua administrazioak IA erabiltzen duenean

Etorkizun hurbilean Europako estatu kide guztietan digitalizazio prozesuak ezarriko dira, eta datuen ekonomian eta horien aplikazioen berrikuntzetan egun duen lidergoa mantentzeko, kalitatezko azpiegituraz gain, balioetan eta oinarritzko eskubideen errespetuan oinarrituko den marko arautzaile bat eraiki behar da. Ildo horretan, Europako Liburu Zuria hainbat neurri politiko finkatu ditu, eta automatizazio prozesuak eta teknologia berriak aplikatzeko inbertsio publiko nahiz pribatuak zehazten ditu. Beraz, etorkizunean neurri horiek administrazioarengan izango dute eragina (27).

Alegia, Datu Babesen Erregelamendu Orokorreko 71. kontsiderandoak automatizazio prozesuetarako irizpideak finkatzen ditu. Araudi berdineko 4.4. artikulua dio perfilen elaborazioa jarduera automatizatua dela eta horiek osatzeko prozesuan pertsonen datuak erabili eta efektu juridikoak sortzen dituztela. Baina 22. artikulua, berriz, adierazten du pertsonen eskubidea dutela prozesu automatizatueta soilik oinarritzen diren erabakien objektu ez izateko, perfilen osaketa barne, baldin eta eragin juridikoak izan baditzake (28).

Xedapen horri jarraiki, erregelamenduak salbuespen egoera batzuk aipatzen ditu, non erabaki individual automatizatuak burutzeko ez den adostasunik behar. Kasu horiek honako hauek dira:

- Europar Batasuneko arau edo estatu partaideen arauen batek onartzen duen egoeretan eta hein berean eskubide eta askatasunak babesteko neurri egokiak daudenean.
- Kontratua edo hori exekutatzeko beharra dagoenean.
- Interesdunaren aldetik onarpen zehatza dagoenean.

(27) COM (2020) 66 final

(28) PALMA, A., (2019). «Decisiones automatizadas en el RGPD. El uso de algoritmos en el contexto de la protección de datos», *Revista General de Derecho Administrativo*, 50. zkia. INAP. Berreskurtua: <http://laadministracionaldia.inap.es/noticia.asp?id=1509629>



Aipaturiko azken bi kasuetan tratamenduaren erantzule denari dagokio neurri egokiak ezartzea, eskubideak eta askatasuna behar bezala bermatzeko (29).

Hala eta guztiz, norbanakoak aukera izan behar du erabakiak era ez automatizatuan hartzeko, eta Europako estatutu juridikoaren erregulazioak onartu du instrumentuak ezartzea erabaki automatizatuetan. Kasu hauetarako bi eskubide bereizten dira: pertsonen aitortzen zaie erabakiak era automatizatuan ez hartzea eta informazioa izatea. Izan ere, era automatizatuan hartutako erabakiek eragin juridikoak sortzen dituzte eta, horri buruz, doktrinaren alderdi bat irizpide subjektiboak aztertzearen alde agertzen da, hau da, erabakiak norbanakoarengan eragina sortzen ote duen edo ez alde aurretik ezagutzearen aldekoa da. Aldiz, beste batzuek diote tratamenduaren erantzuleek irizpide objektiboen arabera azterketa hori egiteko aukera izango dutela (30).

Azaldutakoaren arabera, automatizaziotik inteligentzia artifizialera urrats bat dago. Hau dela eta, zalantzak sortzen dira aplikatu beharreko irizpideen inguruan, hots, erakunde publikoek IA erabiltzen dutenean automatizazio prozesuetarako arautua dagoena baliagarria ote den ala ez ikertu behar da.

Europako Batzordeak aholkatzen du administrazioak adimen artifiziala aplikatzerakoan bizitza pribatuaren zaintza, babesa eta gardentasuna bermatu behar dituela, eta aitortzen du erregelamendu orokorrak eta lege organikoak adierazten dituzten printzipioak aplikatu behar direla (31).

Ondorioz, administrazioak herritarren datu pertsonalen tratamenduan pribatutasun eskubidea bermatzeko erantzukizuna du eta ulertzen da adimen artifiziala erabiltzen duenean, ordenamendu juridikoan aurreikusten diren minimizazio, konfidentzialtasun, anonimizazio, gardentasun... printzipioak bete behar dituela. Hala ere, adimen artifizialaren arabera erabakiak hartzeak herritarren aukera izan behar du, hots, herritarrak horretarako baimena eman behar du. Era horretan, administrazioak ezingo du interes orokorrean oinarritu teknologia honen erabilera, eta datu pertsonalen erabilera zuzena bermatu beharko du. Ildo horretatik, aztertu beharra dago IAren erabilerak sortuko dituen ondorioak.

(29) CAMPOS, C., (2018). *Aplicación práctica y adaptación de la protección de datos en el ámbito local. Novedades tras el Reglamento Europeo. Configuración de los derechos de las personas tras la reforma. Su ejercicio en el ámbito local.* Wolters Kluwer. 154-155 or; 679/2016 Ebazpena GT29. Berreskuratua: file:///C:/Users/jone/Downloads/wp251rev01-es.pdf

(30) PALMA, A., (2019). «Decisiones automatizadas en el RGPD. El uso de algoritmos en el contexto de la protección de datos», *Revista General de Derecho Administrativo*, 50. zkia. INAP. Berreskuratua: <http://laadministracionaldia.inap.es/noticia.asp?id=1509629#nota19>

(31) COM (2020) 65 final.



5. Inteligentzia artifiziala aplikatzearen ondorioak

Inteligentzia artifiziala hainbat erakunde publikotan aplikatzen denean, honako onurak sortuko dituela aurreikusten da.

5.1. ALDERDI POSITIBOAK

Adimen artifizialaren erabilerak eragin nabarmena izango du administrazioaren barne kudeaketan, informazio sistemaren euskarrian eta politika publikoen artikulatuetan, betiere gardentasun printzipioa bermatzen bada. Gainera, IAk ahalbidetzen du datuak biltzeko mekanismoak azkartasunez egitea, jardueren erritmoa bizkortzea, akatsak edo huts egiteak sahiestea, makinak erabakiak zehaztasunez hartzeko gai dira eta (32).

Ilido beretik, tramitazioak egiterakoan adimen artifiziala aplikatzeak hainbat abantaila sortu ditzake erabiltzaileentzat, adibidez, alerta goiztiarrek automatikoki finkatuz erabiltzaile bakoitzak duen interesera egokitu ditzake.

Beste eremu batzuetan bere aplikazioak onurak sortu ditu. Esate baterako, ogasunean hainbat prozesu era azkar, masibo eta seguruan egin daitezke, hutsegiteak murrizteko (33). Era berean, kontratazio publikoaren prozesuan, prestakuntzan, kontabilizazioaren kontrolean, exekuzioan... lagungarria da, prozesuak bizkortu eta era seguruan gauzatu daitezkeelako (34). Honen guztiaren, administrazioa produktiboagoa eta eraginkorragoa izatea lortzen da.

Aditu batzuen ikuspuntutik, teknologia honen onuradun nagusiak herritarrak izango dira, administrazioaren hainbat jarduera monitorizatzeko aukera egongo baita eta, ondorioz, administrazioak zerbitzu pertsonalizatuagoak eskaini eta herritarren eskaerei erantzun zuzena eta azkarragoa ematea lortuko da baita, baldin eta eskaintza pertsonalizatua ez bada mugatzen datu babesean dituen datuetara (35).

(32) *Inteligencia artificial: ventajas y desventajas. Kaizen networks*. Berreskuratua : <http://kaizennetworks.es/inteligencia-artificial-ventajas-y-desventajas/>

(33) GONZÁLEZ, Ubaldo, (2020). «Inteligencia artificial y administración tributaria». Fernando SERRANO ANTÓN, *Fiscalidad e inteligencia artificial: administración tributaria y contribuyentes en la era digital*. Aranzadi. 148. or.

(34) VALERO, J., (2020). «Inteligencia artificial y contratación del sector público». *Observatorio de contratación pública*. Berreskuratua: <http://www.obep.es/opiniones/inteligencia-artificial-y-contratacion-del-sector-publico>

(35) CERRILLO, A., (2019). «El impacto de la inteligencia artificial en el derecho administrativo ¿nuevos conceptos para nuevas realidades técnicas?» *Revista General de Derecho Administrativo*; ALAMILLO, I. eta URIOS, X., (2011). *L'actuació administrativa automatitzada en l'àmbit de les administracions públiques. Anàlisi jurídica i metodològica per a la construcció i explotació de tràmits automàtics*. Escola d'Administració Pública de Catalunya. Barcelona 2011.



Honek guztiak administrazioaren kostua murrizten lagunduko du, lan batzuk sistema automatizatuen bidez egingo baitira nahiz eta horretarako hasieran egin behar diren inbertsioen kostua altua izan.

Administrazioak, bestalde, badu ardura arrisku eta iruzurrak ekiditen, eta tresna hau baliagarria gerta daiteke inspektzioak burutzeko, hots, eremu zehatz batzuetan egin beharreko datuen gaineko kontrola era automatizatuan gauzatu daiteke (36).

Hortaz, IAren erabilerak administrazioan eragin positiboak sortu ditzaie, barne funtzionamenduan efizienteagoa izaten, ikuskatzeak egite-rakoan... eta, kanpo eremuan lehiakorragoa izaten herritarren eskaerei erantzun azkarra eta pertsonalizatuagoak ematerakoan... Baina beharrezkoa da herritarren konfiantza eskuratzea eta, horretarako, adimen artifizialaren aplikazioa era ziurrean erabiliko dela bermatu behar da, hau da, Europar Batasunak aipatu dituen hiru irizpide hauek bete behar dira: printzipio etikoak, legearen baitakoak eta solidoak izatea. Horrela, inteligentzia artifizialaren erabilera tresna lagungarria izan daiteke, betiere diseinatzen den aplikazioa egokia bada (37).

5.2. ALDERDI NEGATIBOAK

Bestalde, IAren erabilerak abantaila batzuk eskaintzen dituen arren, zein arazo edo alderdi negatibo izan ditzaken aztertzea ezinbestekoa da.

Lehenik eta behin, administrazio publikoak administrazio onaren printzipioa bete behar du, hau da, herritarren zerbitzuetara jardun eta beraien interesen aldeko ekintzak burutu behar ditu, baina gizartean egoera anitzak ematen dira eta pertsona guztiek ez dituzte teknologien ezagutza eta baliabideak. Hortaz, erakunde publikoek adimen artifiziala aplikatzen dutenean, herritarren ezjakintasunak sistema honekiko konfiantza eza sortu dezake eta, gainera, diskriminazio egoerak gerta daitezke gizartean da- goen arrakala digitalarengatik.

Arazo honi gehitu behar zaio administrazioak erabakiak hartzeko erabiliko duen prozeduren inguruko informazioa bermatu behar duela, sistema opakoak alboratuz eta gardentasun printzipioan oinarrituz. Beraz,

(36) RODRÍGUEZ, P., (2019). «Casos de uso de la Inteligencia artificial y del Blockchain en la administración local». *Estrategia administración electrónica*. Berreskuratua : <https://www.consiliaria.es/casos-de-uso-de-la-inteligencia-artificial-y-del-blockchain-en-la-administracion-local/>; BERRYHILL J., KOK HEANG, K., CLOGHER, R. eta McBRIDE, K., (2020). «Hola, mundo: la inteligencia artificial y su uso en el sector público». *Documentos de trabajo de la OCDE sobre gobernanza pública* 36. zkia. <https://oecd-opsi.org/wp-content/uploads/2020/11/OPSI-AI-Primer-Spanish.pdf>

(37) COM (2019) 168 final; Directrices éticas para una IA fiable (2019). *Grupo independiente de expertos de alto nivel sobre Inteligencia Artificial*. Berreskuratua: file:///C:/Users/jone/Downloads/ethics_guidelines_for_trustworthy_ai-es_87FCE0E1-BB31-C0EB-A9F549AE2D3AC1F9_60423.pdf



herritarrak informatu behar dira inteligentzia artifiziala soilik aplikatzerakoan edo eta pertsonen esku hartzea egon den erabakiak hartzerakoan. Gainera, adimen artifizialean erabiltzen diren algoritmoak ez dira beti gardanak, eta araudi ezak oztopatzen du herritarrak erabili den teknologiaren inguruko informazioa eskuratzea (38).

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea algoritmoak oinarrian neutroak direla, baina sartzan diren datuen arabera perfilak sortzen dira, eta horrek hartzen dituen erabakietan ondorioak sortuko ditu. Hau da, algoritmo batzuk pertsonak dituzten portaerak aztertu, pilatu eta prozesatzen dituzte, eta etorkizunean izango duten portaera eta funtzioak aurreratzen ditu. Honen ondorioz, kasu batzuetan, diskriminazio egoerak gerta daitezke, norbanakoak iraganean izandako erabaki eta portaeren baitako perfiletan oinarritzeko arriskua baitago (39).

Halaber, erakunde publikoek inteligentzia artifiziala aplikatzeko beharrezkoa den teknologia azpiegituraz gain, langileen formazioa bermatu behar dute bere jardunerako. Horrez gain, jarduera administratibo batzuk IAren bidez egiten badira, ekintza horien ikuskatzea bermatu behar da eta langileak teknologia berri honetan trebatu behar dira (40).

Araudi faltak arazo nabarmenak sortzen ditu segurtasun juridikoari dagokionez, izan ere, edozein arazo teknikoren aurrean herritarrak babesgabe geratu daitezke eta, prozesuen ikuskapenik ez bada ziurtatzen, herritarrak erantzukizunak eskatzeko zailtasuna areagotzen da (41).

Alderdi negatiboak aztertuta, antzematen da erakunde publikoek gardentasun printzipioa bermatzeko zailtasunak gerta dituztela, IA erabiltzen diren algoritmoen informazioa opakoa delako, eta desaban-

(38) FONDEVILA, J., (2020). «La organización de la Administración digital», Isaac MARTÍN DELGADO (Director): Iustel. *El procedimiento administrativo y el régimen jurídico de la administración pública desde la perspectiva de la innovación tecnológica*. Edt. Iustel, IVAP, Centro de Estudios Europeos Luis Ortega Álvarez. 2020, 424-426 or.; DE LA NUEZ SÁNCHEZ -CASCADO, E., «Inteligencia artificial y transparencia. Especial referencia a su utilización en el ámbito de las administraciones públicas». *El Notario*, 93 zkia., 74-78 or. Berreskuratua: <https://www.elnotario.es/opinion/opinion/10160-inteligencia-artificial-y-transparencia-especial-referencia-a-su-utilizacion-en-el-ambito-de-las-administraciones-publicas>

(39) BARBARÀ, M.A., «Inteligencia Artificial: decisiones automatizadas en Cataluña»; GOLOBARDES, E., «Se están resolviendo problemas que no sabemos cómo se han resuelto» APDCAT. Berreskuratua <https://apdc.gencat.cat/web/.content/04-actualitat/noticies/documents/Informe-IA-Castellano.pdf>; CAMPOS, C., (2021). «Administración digital e inteligencia artificial: ¿Un nuevo paradigma en el derecho público?», C. RAMÍO MATAS (Coord.), *Repensando la Administración digital y la innovación pública*, 114 or., Instituto Nacional de Administración Pública. INAP. RAMÍO C. «Privacidad de grupo». (2020). AEPD. Berreskuratua: <https://www.aepd.es/es/prensa-y-comunicacion/blog/privacidad-de-grupo>

(40) RIGO, R.E., (2019). «Inteligencia Artificial y Administración pública: robots y humanos comparando el servicio público», *GAPP*, 22 zkia., 140-144 or.

(41) CORTÉS, O., (2019). «Algoritmos y algunos retos jurídico- institucionales para su aplicación en la administración pública». *Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria / Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas*, 18 zkia., 54-63 or, https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/rvgp_ultimo_numero/es_def/Cortes_54_63.pdf



tailak edo eta egoera diskriminatzaileak saihesteko neurriak hartzea garrantzitsua da. Bide horretan, eredugarria izan daiteke Estatu Batuetan egin den lege proposamena. Bertan, segurtasun juridiko egoia bermatzen ez duten edo eta diskriminazio egoerak sortzen dituzten algoritmoen erabilera debeketzen baita. Horrez gain, administrazioak barne funtzionamenduan hainbat mekanismo ezarri behar ditu huts egiteak ekiditeko. Neurrien artean aipatu daitezke algoritmoek emandako erantzunen erregistroa izatea eta IAren ikuskatzea burutuko duen lan talde bat sortzea. Beraz, arazoak saihesteko araudiak sortu behar dira eta errealitate juridikora egokitzen diren mekanismoak aplikatu behar dira (42).

IV. Adimen artifiziala administrazioen ahalmen arautuetan

Administrazioan inteligentzia artifizialaren aplikazioaren erabilerak erronka berriak sortzen ditu. Batetik, IAk duen konplexutasun teknikoa eta bere izaera dinamiko eta ebolutiboari erantzun beharra. Bestetik, egun dagoen araudi falta. Ildo horretan, eremu juridikoak aukera du, gauzak arautu, ez aratu edo interesdunen arabera arautzeko (autoerregulazio edo sandboxes moduan ezagutzen dena), azken honen xedea izanik enpresa zein interesdunen nahien araberako xedapenak sortzea.

Garaiotan, adimen artifizialak behar duen araudiaren inguruan eztabaida sortzen ari da, ekintza arautuetara mugatu behar ote den edo eta ahalmen diskrezionalean jarduteko aukeretara zabaldu behar ote den. Aditu batzuen ikuspuntutik, teknologia hau ekintza arautu moduan ulertu behar da, IA ezin baita erabili balorazio subjektiboa eskatzen den prozesuetan eta, horregatik, kudeaketa publikoan zuzenbide malguaren arabera arautu beharra aurreikusten dute (43).

Bide berean, autore batzuek diote botere publikoek era zabal batean arautu behar dutela inteligentzia artifiziala eta, kasu bakoitzean, autoerregulazio bermatu behar dela, eta estatu demokratiko eta aske batean dauden balore eta printzipioak aplikatu (44). Horrez gain, kasu bako-

(42) EEUU: propuesta de Ley para combatir los algoritmos perjudiciales utilizados por la plataforma en línea e imponer un nuevo régimen de transparencia. (2021) *Diario la Ley*. Berreskuratua: <https://www.worldcomplianceassociation.com/2336/noticia-se-presenta-en-los-estados-unidos-un-proyecto-de-ley-de-responsabilidad-algoritmica-algorithmic-accountability-act.html>

(43) ALAMILLO, I. eta URIOS, X., (2011). *La actuación administrativa automatizada en el ámbito de las administraciones públicas: Análisis jurídico y metodológico para construcción y la explotación de trámites automáticos*, 26-27 or., Escola d'Administració Pública de Catalunya.

(44) CAMPOS, C., (2021). «Administración digital e inteligencia artificial: ¿Un nuevo paradigma en el derecho público?», C. RAMIÓ MATAS (Coord.), *Repensando la Administración digital y la innovación pública*, 114 or., Instituto Nacional de Administración Pública. 112-113 or.



tzean eragin dezaketen aldagarriek ere arautuak egon behar dutela defendatzen dute (45).

Doktrinaren beste alderdi batek, ordea, dio inteligentzia artifizialak ekintza administratibo formalizatu edo arautua izan behar duela, hau da, hobe dela zuzenbide zurruna (hard law) ezartzea, zuzenbide malgua (soft law) aplikatzea baino. Hortaz, teknikoki burutu daiteken arren, beraien iritziz, teknologia hau ez da erabili behar egoera diskrezionaletan (46). Beste autore batzuk bat datoz ideia horrekin, eta adierazten dute adimen artifizialaren erabilera laguntza tresna moduan kontsideratu behar dela, azken erabakia gizakien esku behar duelako izan; horrela, pertsonen eskubideak bermatu eta arriskuak eta zailtasunak aurreikusi eta saihestuko direlako (47).

2016ko abenduaren 5ean Auzitegi Gorenak ebatzitako sententzia batek adierazten du erabaki diskrezionalek pertsonen eskumena behar dutela izan, eta azpimarratzen du administrazio onaren printzipioaren betebeharrak. Hortaz, egoerak enpatiaz baloratzeko gaitasuna, eskubideak eta interesak bermatu behar dio (48).

Administrazioak inteligentzia artifiziala erabiltzen duenean arau orokor batzuk bete behar ditu, eta herritarrei teknologia berri hauen erabileraren berme batzuk eman behar dizkio. Ildo beretik, ekintza administratibo guztiek ezin dute izan IAren baitakoak, hots, langileen ikuskatzea gauzatzen dela bermatu behar da.

Inteligentzia artifiziala arautzeko beharra nabarmendu ondoren, azpimarratu behar da oinarrian datu pertsonalak daudela eta, adimen artifiziala eraginkorra izateko, beharrezkoa da hauek kalitatezkoak eta zuzenak izatea. Administrazioak zehaztu behar du zein datu eta ebidentzia mota behar duen, haien denboragarritasuna eta indarraldia finkatuz, IA erabilizteko.

(45) COTINO, L., (2019). «Riesgo e impactos del big data, la inteligencia artificial y la robótica. Enfoques, modelos y principios de la respuesta del derecho». *Revista General de Derecho Administrativo*, 50. zkia.

(46) BERRYHILL, J., (2021). «Call for innovations on Cross-Border Collaboration» *Asociación Mexicana de internet*. Berreskuratua: <https://oecd-opsi.org/wp-content/uploads/2020/11/OPSI-AI-Primer-Spanish.pdf> 40or.; PONCE, J., (2019). «Inteligencia artificial, Derecho administrativo y reserva de humanidad: algoritmos y procedimiento administrativo debido tecnológico», *Revista General de Derecho Administrativo*, 50 zkia. INAP. Berreskuratua: <http://laadministraciondiala.inap.es/noticia.asp?id=1509505>

(47) CAMPOS, C., (2021). «Administración digital e inteligencia artificial: ¿Un nuevo paradigma en el derecho público?», C. RAMIÓ MATAS (Coord.), *Repensando la Administración digital y la innovación pública*, 114 or. Instituto Nacional de Administración Pública.

(48) MARTÍN, I., (2009). «La gestión electrónica del procedimiento administrativo», *QDL*, 21 zkia., 99 or., STS 2016/12/05 REC. 378/2013



V. Ondorioak

Inteligentzia artifizialaren kontzeptua zehaztu behar da. Etorkizun hurbilean administrazioan erabilera ugari izatea aurreikusten da, hortaz, berme juridikoa behar da. Bere funtzionamendua algoritmoetan oinarritzen da eta hauen diseinuek adimen artifizialaren aplikazioan eragina dute. Beraz, administrazioak IA n erabiltzen dituen algoritmoak gardentasunez azaldu behar ditu.

Administrazio elektronikoaren kontzeptua zabala eta multidisziplinarra da eta bilakaera bat izan du. Administrazio erreaktibotik proaktibora urrats bat eman da, IKT erabileraren ondorioz. Administrazio digitala errealitate bat izango da erakunde publikoetan, eta honekin bat eginez, administrazio onaren printzipioa betetzen dela ziurtatu behar da eta bere zerbitzuak herritarren beharretara egokitu behar ditu.

Egun, administrazioan ekintza automatizatu batzuk burutzen dira makinak izanik erantzunak emateaz arduratzen direnak. Ordenamendu juridikoak horien erabilera era orokorrean arautzen ditu eta zenbaitetan zailtasunak sortzen dira, beraz, teknologia berriak aplikatu aurretik hauek arautzea garrantzitsua da.

Bestalde, administrazioak datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa du interes publikoan oinarrituta, xede jakin bat dagoenean eta interesduna informatuz. Baina kasu batzuetan interesdunak adierazten duen adostasuna ez da askea, administrazioarekin duen harreman bertikalaren ondorioz, eta egoera horietan ezin da interpretatu oinarri juridikoa adostasuna denik. Ildo horretan, administrazioak herritarren datu ugari eta era askotarikoa ditu eta, hauek teknologia berrietan aplikatzen direnez, egiten duen datuen erabilerak arauetan oinarritu behar du. Hala ere, ordenamendu juridikoa osatzea falta da eta zentzu horretan, Europako Batzordeak arau proposamena egin du.

Era berean, IAren aplikazioa arautua ez dagoenez, ordenamendu juridikoan, datuen konfidentziasunean eta pribatutasunean berme juridikoa falta da. Eta Espainiako Datu Babesen Agentziak adierazi du administrazioak IA erabiltzen duenean datuen kontrol zehatza burutu behar duela prozesuaren hasieratik amaieraraino.

Aipatutakoaren ildotik, inteligentzia artifizialaren erabilerak hainbat ekintza administratibo erraztuko dituen arren, bere aplikazioak diskriminazio egoerak ekiditeko, Datu Babesen Erregelamendu Orokorrak adimen artifizialaren aplikazioaren diseinuan eta exekuzioan ikuskatze prozesuak eta probak egitea arautu behar du, printzipio etikoetan oinarrituz eta perfil diskriminatzaileak ekidinez. Zentzu berean, inteligentzia artifizialaren erabilerak sortu ditzaken hutsegite edo kalte egoerarako erantzukizunak aurreikusi behar dira, herritarrei babes juridikoa emateko.



Bide horretan, administrazioan IAren araudia era zabalean arautzea egokiagoa izan daiteke kasuan kasu bere aplikazioa baloraturaz eta egokituz. Hala ere, agintari publikoek erabakiak adimen artifizialaren arabera hartzen dituztenean, ikuskatzeak, aplikazioaren mugak, erantzukizunak... arautu behar dituzte.

Teknologia berrien aplikazioak administrazioan aldaketak eragin ditu. Tramiteen azkartasunean eta eraginkortasunean onurak ekarri baiditu ere, hutsuneak eta erronka berriak sortu ditu, esaterako, herritarrek administrazioarekin duen harremana sistema automatizatuen bidez egiten da, eta zenbaitetan zailtasunak sortzen dira, gizarteko kideak ez baitaude formatuak eta informatuak erabilera honetan eta horrela, arrakala digitala areagotzen da eta administrazioarengan konfiantza eza sortzen da.

Administrazioan inteligentzia artifizialaren erabilera ezarriko dela aurreikusten da. Sistema honen oinarrian algoritmoak daude, biltzen dituzten datuen arabera eta definitu den diseinuaren arabera erantzun bat edo beste emango dute. Gainera, erabakiak hartzeko prozesuetan aplikatuko dela aurreikusten da eta batzuetan herritarren datu pertsonalak erabiliko dira. Ondorioz, herritarrek datuak nola eta zertarako erabiliko diren eza-gutu behar dute. Beraz, administrazioak gardentasun printzipioa bermatu behar du eta datuen konfidentzialtasuna eta pribatutasuna zaindu behar ditu. Erronketako bat da segurtasun juridikoa bermatuko duen ordenamendu juridikoa osatzea, administrazioak adimen artifiziala erabiltzen duenerako.

Ildo horretatik, IAren diseinua zehazterakoan zein exekuzioan, pertsona fisikoek izan behar dute ikuskatze prozesuak egiteko arduradunak eta, horren arabera, adimen artifizialaren bitartez hartu diren erabakiak arrazoitzeko bermea egongo da. Bestalde, teknologia berrien erabilera baimentzen bada ere, ez da beti zertan aplikatu, herritarrek eskubidea izan behar dute zerbitzuak ez era inteligentean jasotzeko. Beraz, administrazioak zehaztu behar du adimen artifizialaren erabilera zertan aplikatu dezaken eta izango duen eraginkortasuna. Ondorioz, teknologia berrien erabilerak ez du soilik prozesu zein tramiteen azkartasuna biltu behar, herritarren ongizatea lortzera bideratu behar da eta laguntza tresna moduan ulertu behar da.

Bibliografia

ALAMILLO, Ignacio eta URIOS, Xavier (2011). *L'actuació administrativa automatizada en l'àmbit de les administracions públiques. Anàlisi jurídica i metològica per a la construcció i explotació de tràmits automàtics. Escola d'Administració Pública de Catalunya.*



- ASENSIO, Pedro (2021). «Propuesta de Reglamento sobre inteligencia artificial». *Wolters Kluwer*, 92 zkia.
- BARBARÀ, María Ángeles. «Inteligencia Artificial: decisiones automatizadas en Cataluña» APDCAT.
- BERRYHILL, J., KOK HEANG, K., CLOGHER R. eta McBRIDE, K., (2020). «Hola, mundo: la inteligencia artificial y su uso en el sector público». *Documentos de trabajo de la OCDE sobre gobernanza pública*, 36 zkia.
- BERRYHILL, Jaime (2021). «Call for innovations on Cross- Border Collaboration» *Asociación Mexicana de internet*.
- BONMATÍ, José (2018). «Protección legal de los algoritmos». *Economist&Jurist*.
- BUENADICHA, César; GALDÓN, Gemma; HERMOSILLA, Mari Paz; LOEWE, Daniel eta POMBO, Cristina. (2019). *La gestión ética de los datos*. BID.
- CAMPOS, Concepción (2018). *Aplicación práctica y adaptación de la protección de datos en el ámbito local. Novedades tras el Reglamento Europeo. Configuración de los derechos de las personas tras la reforma. Su ejercicio en el ámbito local*. Wolters Kluwer.
- CAMPOS, Concepción (2021). «Administración digital e inteligencia artificial: ¿Un nuevo paradigma en el derecho público?», C. RAMIÓ MATAS (Coord.), *Repensando la Administración digital y la innovación pública*, Instituto Nacional de Administración Pública.
- CERRILLO, A. (2019). «El impacto de la inteligencia artificial en el derecho administrativo ¿nuevos conceptos para nuevas realidades técnicas?» *Revista General de Derecho Administrativo*.
- CORTÉS, Óscar (2020). «Algoritmos y algunos retos jurídico- institucionales para su aplicación en la administración pública». *Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria/Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas*, 18 zkia., 54-63 or.
- COTINO, Lorenzo (2019). «Riesgo e impactos del big data, la inteligencia artificial y la robótica. Enfoques, modelos y principios de la respuesta del derecho». *Revista General de Derecho Administrativo*, 50. zkia.
- CORTINA, Adela (2019). *Ética de la Inteligencia Artificial*.
- DE LA NUEZ SÁNCHEZ -CASCADO, Elisa. «Inteligencia artificial y transparencia. Especial referencia a su utilización en el ámbito de las administraciones públicas». *El Notario*, 93. zkia., 74-78 or.
- ESTEBAN, Jesús (2019). «La inteligencia artificial (IA) : aplicación jurídica y regulación en los servicios de salud», *Derecho y salud*, 2019, 1. zkia., 265-277 or.
- FERNÁNDEZ, Carlos eta BOULAT, Pierre (2015). «Inteligencia Artificial y Derecho». *Problemas y perspectivas Noticias jurídicas*.
- FONDEVILA, Javier (2020). «La organización de la Administración digital», I. MARTÍN DELGADO (Coord.), *El procedimiento administrativo y el régimen jurídico de la administración pública desde la perspectiva de la innovación tecnológica*, Iustel.
- GONZÁLEZ, Ubaldo (2020). «Inteligencia artificial y administración tributaria», F. SERRANO ANTÓN (Dir.), *Fiscalidad e inteligencia artificial: administración tributaria y contribuyentes en la era digital*. Aranzadi.



- HERNÁNDEZ, Sergio; PALAFOX, Gustavo eta AGUADO, César (2020). «Administración Pensamiento, procesos estratégicos y administrativos para la era de la inteligencia artificial». *Teoría general de sistemas (TGG) y sistemas de información SIAG. De los algoritmos sistemáticos a la inteligencia artificial*. McGrawHill.
- *Inteligencia artificial: ventajas y desventajas. Kaizen networks*.
 - *La diferencia entre inteligencia artificial y automatización*. (2017) Observatorio IA. Kratts: Servicio de Inteligencia Artificial; “50 soluciones de inteligencia artificial estarán en uso en Estonia a finales de 2020.”
- MARTÍN, Isaac (2009). «La gestión electrónica del procedimiento administrativo», QDL, 21 zkia.
- MARTÍNEZ, Ricardo (2019). «Cuestiones de ética jurídica al abordar proyectos de Big Data. El contexto del Reglamento general de protección de datos». *Dilemata*, 2017, 24. zkia., 151-164 or.
- PADILLA, Pedro (2019). «Algoritmos y transparencia administrativa». *Novagob*
- PADILLA, Pedro (2019). «Inteligencia artificial y administración pública. Posibilidades y aplicación de modelos básicos en el procedimiento administrativo». *Innovación y e- Administración*.
- PALMA, Adrián (2019). «Decisiones automatizadas en el RGPD. El uso de algoritmos en el contexto de la protección de datos», *Revista General de Derecho Administrativo*, 50. zkia.
- PÉREZ, Enrique (2021). «Europa crea la primera regulación sobre Inteligencia Artificial y robots: se prohíbe el reconocimiento facial en zonas públicas, con algunas excepciones». *Xataka*
- PONCE, Juli (2019). «Inteligencia artificial, Derecho administrativo y reserva de humanidad: algoritmos y procedimiento administrativo debido tecnológico». *Revista General de Derecho Administrativo*, 50 zkia.
- RAMIÓ, Carles (2021). *Repensando la administración digital y la innovación pública*. INAP.
- RIGO, Raúl Enrique (2019). «Inteligencia Artificial y Administración pública: robots y humanos compartiendo el servicio público», *GAPP*, 22. zkia.
- RODRÍGUEZ, Paula (2019). «Casos de uso de la Inteligencia artificial y del Blockchain en la administración local». *Estrategia administración electrónica*.
- SEMINARIO, Marta (2019). «La administración pública y protección de datos de carácter personal». *Atico34*.
- STEELS, Luc eta LÓPEZ DE MANTARAS, Ramón (2018). «The Barcelona declaration for the proper development and usage of artificial intelligence in Europe». *Al communications* 31.
- VALERO, Julián (2019). «Las garantías jurídicas de la Inteligencia Artificial en la actividad administrativa desde la perspectiva de la buena administración». *Revista Catalana de Dret Public*.
- VALERO, Julián (2020). «Inteligencia artificial y contratación del sector público». *Observatorio de contratación pública*.



Ebazpenak

Adecuación al RGPD de tratamientos que incorporan inteligencia artificial.

Una introducción. (2020) *AEPD*

COM (2019) 168 final

COM (2020) 65 final

COM (2020) 66 final

COM (2021) 206 final

Directrices éticas para una IA fiable (2019). *Grupo independiente de expertos de alto nivel sobre Inteligencia Artificial.*

Directrices sobre decisiones individuales automatizadas y elaboración de perfiles a los efectos del Reglamento 2016/679 *GT.29.*

Dictamen del Supervisor Europeo de Protección de Datos sobre el Libro Blanco de la Comisión Europea sobre la inteligencia artificial: un enfoque europeo orientado a la excelencia y la confianza C392/03 (2020). *GT29*

Directrices sobre el consentimiento en el sentido del Reglamento (UE) 2016/679. *GT29.*

EEUU: propuesta de Ley para combatir los algoritmos perjudiciales utilizados por la plataforma en línea e imponer un nuevo régimen de transparencia. (2021) *Diariolaley.*

ENIA (2020) *Estrategia Nacional Inteligencia Artificial.*

Estrategia Española de I+ D+ I en inteligencia artificial. (2019) *Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades.*

La Comisión Europea ante el reto de regular correctamente la inteligencia artificial. (2021). *Expansión.*

Opinión 4/2020: EDPS Opinion on the European Commission's White Paper on Artificial Intelligence- A European approach to excellence and trust. (2020). *SEPD.*

Orientación para la aplicación de la disposición adicional octava y la disposición final duodécima de la LOPDGDD. (2020) *AEPD.*

Plan de Digitalización de las Administraciones públicas 2021-2025. Estrategias en materia de administración digital y servicios públicos digitales.

Plan estratégico de la Agencia Tributaria 2020-2023. *Agencia Tributaria.*

Privacidad de grupo. (2020) *AEPD.*

Protección de datos y administración local. (2019). *AEPD*

Tecnologías y Protección de Datos en las AA.PP (2020) *AEPD*

181577/2018 Txostena *AEPD*

200012/2018 Txostena *AEPD.*

679/2016 Ebazpena *GT29.*

Sententziak

SAK 2019/05/22 REC. 2019-1455

STS 2016/12/05 REC. 378/201



